

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskalari

Udalbatzak 2025eko uztailaren 30eko osoko bilkuran hartutako erabakia (ALHAOn 2025eko abuztuaren 22an argitaratua, 94. zenbakian) jendaurrean egon den aldian haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtzen da, bat etorritik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. artikuluan ezartzen duenarekin. Ordenantzaren testua argitaratzen da. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hona hemen hitzez hitz:

ZERBITZUAK EMATEAGATIK ETA JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

8. epigrafea: Ibilgailu elektrikoak kargatzeko zerbitzuaren prezio publikoa

1. artikulua. Lege oinarria

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2.l artikulua emandako eskudantziak baliatuz, udal honek prezio publikoa ezartzen du udal hornidura puntuetan ibilgailu elektrikoak kargatzeagatik.

2. artikulua. Obligazioa sortzea

Prezio publikoa ordaindu beharra zerbitzua ematen hasten den unean sortzen da, baina udalbatzak haren zenbateko osoa edo zati bat aldeztu aurretik gordailutzeko eskatu ahal izango du, ordenantzaren 8. artikulua arabera.

3. artikulua. Ordaintzera behartuta daudenak

Prezio publikoa ordaindu behar dute hura ordaindu beharra dakarren zerbitzuaz baliatzen direnek.

4. artikulua. Zenbatekoa

Prezio publikoaren zenbatekoa hau izango da:

0,25 euro kilowatteko eta orduko.

5. artikulua. Kobranta

Prezio publikoa ordaindu beharra zerbitzua ematen den edo jarduera hasten den unean sortzen da, bat etorritik ordenantzaren 7. artikulua erekin. Prezioa ordaindu behar duenari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik zerbitzua ematen edo jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio. Prezio publikoa autolikidazioaren bidez ordaintzeko eskatu ahal izango da. Prezio publikoak ez ordaintzearen zorrak premiamendu bidez eskatuko dira.

6. artikulua. Kudeaketa

Zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik prezio publikoak arautzen dituen indarreko ordenantzan agindutakoa bete beharko dute kudeaketa arauak.

7. artikulua. Indarrean jartzea

Prezio publiko hau testu arautzaile hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Legutio, 2025eko urriaren 6a

Alkatea

NEREA BENGOA GARCÍA DE CORTAZAR